

## HERRI BEZALA, NORA GOAZ?

## EZ-BAIKA

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

## Joanak joan? (Projektu ahantziak)

**1** 961-1964 urteetan, proiektu abertzaleen arrago bihurtu zen Iparraldean. Frankismoaren amaia ez zen oraindik somatzen. Eta mugaz bestaldean bizi ginenok, oso giro berezia ezagutu genuen, eta oso harreman berezitan oratua.

Borroka hartamua hasi gabe zegoen oraindik (nahiz ETA jaioa izan). Iparraldean Enbata besterik ez zegoen politikaren alorrean. Gehi, hori bai, guztiz at zeutuzten (hitz egokia haxe baita) Jaurilaritzaren eta PNVren «delegazioak», adineko betaranoen eskuetan herdoildurik.

«Zerbait» asmatu behar zen. Baina handia zen ezintasuna. Eta pote egin nahi ez genuen deserriutu gazteon artean, proiektuen loraldia izan zen. Nahiz proiektu horiek, gaur azalduko dudana hau bezala, obratu gabeko amets gisa suntsitu eta ahaztu. Proiektu askoren aita, egari bere bidea, Federico Krutwig getxotarra; bera ere Hegoaldetik aspaldidantik ihes egina.

Arrapaladan sortu ziren horrela «Vasconia» liburua, Baionako Euskal Idazkaritza, Itzul, eta abar luze bat.

Idea batzuk nagusi, orduko deserriutu gazteon artean:

1.— PNVren politikak (Espainiako Errepublikako Gobernuaren menpe egotea, PSOE-PNVren inguruko «Pacto de Bayona» izenekoari nola-hala cutsi beharra, Iparraldean ezer ez egitea, euskararen normalizazioa geroko uztea, eta abar luze bat) irtenbiderik gabeko zulo batean sartu gintuela.

2.— Frantziako Gobernuari gus-tatuko ez bazitzaion ere, harreman mota guztiak estutu behar zirela Iparraldeko aberkideekin; eta estrategia nazionala bultzatu behar zela.

Eta orduan azkartu zen gure artean proiektu ausart hau: «Euzkadi» hitza alde bat utzi, eta «Nafarroa»

besterik ez erabiltzekoa. «K.L.M.» hirukote bitxiak (Krutwig, Legasse, Mingolarra) harrera ona egin zion; eta gauza bera Lezo, Urreztieta, Zumalabek, eta beste «Jagi-Jagi»-tar batzuek.

Gure ideia nagusiak hauek ziren: 1.— Gure herria, lurraldez eta historiari, baina hizkuntza batez ere, Euskal Herria da; alegia, euskaraz egiten, edo orain dela gutxi arte, egin duen herria. Oinarria hiz-

*Zer esan gaur  
proiektu  
hartaz?  
Erokeria zen  
ote? Orduan  
bai, baina  
gaur ez?*

kuntza da; eta ez arraza eta gainerakoak.

2.— Eraiki behar den Euskal Estatu «Askatua ez da gauza berri bat. Euskal Estatu hori kondairan gauzatu da mendeetan barrena, eta «Nafarroa» du izena. Hedaduraz ere Euskal Herria, Nafarroako herria da. Euskara nafarrera da (erdaraz «el navarro» esatea proposatu genuen; Antso Jakintsuaren «lingua navarrorum» hura). Arana-Goirik



J.L. CERECEDA / Sindikalista

## Arazo nazionala eta ezkerria (II)

**E**GUN, gure bezalako herri zapalduetan, ezin da ezker-tiarra izan arazo nazionala baneratu, bihotzeratu eta ondorio guztiakin defendatu gabe. Jarraian, tesi honen zergatiak azaltzen saiatuko gara.

Sarri askotan esan da arazo nazionala eta klasearteko borroka txanpon berberaren bi aurpegia direla. Denbora pasa ahala, borrokaren ihar-duerak, kapitalismoaren garapenak eta ezker faltsuaren jarretrak, kontzeptu hau argitu dute, agerian bait dago, inolako zalantzarik gabe, askapen nazionalako borroka, klasearteko borrokaren funtsa dela.

Zentzu honetan, helburu nazionalistak —Autodeterminazio Eskubidea (AE), esate baterako— ez dira sinboloak, ikurrak, egitarau politikoetan sartzeko hitz politik soilik, baizik eta borrokaren oinarria, arazo kointuralen gainetik daudenak.

Laburki esanda, hiru dira hau guztia baieztatzeko arrazoiak:

— Lehengo eta behin, askapen nazionalaren alde borrokatzea, inperialismoaren kontra ihardutea da. Gauko honetan, hitz potoiloak esaten dira estatuen desagerpenari buruz, baina errealitatea kontrakoa esaten ari zaigu behin eta berriro. Herri zapalduen kontra ipintzen diren kateak gero eta gogorragoak, basatiagoak dira, hala materialak —belikoak, batik bat— nola ideolo-

gikoak. Gaur, inperialismoak eraginda, nazionalismo «sutsuak» demokraziaren etsaierik handienak direlako teoria hipokrita hedatzen ari da, herri zapalduen kontra erabiltzen den odolozko erreprezioa ziritu nahian. Garai honetan, AEren kontra ihardutea, inperialismoaren alde jokatzea da, ezkerrean oinarriak mesprezatu.

Hau guztia dela eta, galdera bat egin diezaiogegu gure buruari. AE bigarren mailan, bere iharduera politikotik kanpo etengabe uzten duen alderdi bat, benetako abertzaleztat har daiteke?

— Bigarrenez, AE, hots, herriek beren etorkizuna injerentziarik gabe erabakitzeke duten eskubidea errespetatu gabe ez dago demokraziaren berba egiterik. Demokraziarik gabe ez dago aurrerakuntza sozialik. Hortik ondorioztatzen da, ezkerrek, ezinbestez, AEren defendatzaile

*Autodeter-  
minazio  
Eskubidea  
lortzeko bidea  
oztopatzen  
diguten  
horma  
guztiak  
apurtu behar  
ditugu, eta  
lehenengoa,  
Espainiako  
Konstituzioa*

izan behar duela eta ezin duela onartu AE ezagutzen ez duen konstituziorik.

— Azkenik, langileen egoera gero eta dramatikoagoa dela ezin uka. Kapitalismoa, ezker konbentzional-faltsuaren koldarkeria eta ustelkeriari esker, adoretu dabilkigu. Ongizarte Estatu deuseztatu nahian, alde guztietan erasoan, langileen kontra. Langileek gizarte demokratiko behar dituzte, non botere politikoa eta beren partehartzea ihalik eta handiena den. Botere politikorik gabe, langileek inoiz ezingo dituzte beren interesak defendatu. Horregatik, langileek botere politikoz hornitzea da klasearteko borrokaren helbururik handiena. Esan gabe doa, herri zapalduetan, botere politikoa, aldez edo moldez, AEren bidez lortzen dela. Inperialismoaren kontra eta demokraziaren alde aritzeak, langileen botere politikoa errazteak,

asmatutako «Euzkadi» hitza soberan dago; eta ahaztu egin behar da.

Gure oihua, hitz batez: «Gora Nafarroa nafartarra, askatua eta batua». Baxenabarra, bidenabar, Ipar Nafarroa da besterik ez.

Aldizkari bat sortzea pentsatu genuen. Donibane Garazin aterako zen; Nafarroan, beraz. Batez ere frankismoak iraungo zueno, Hego-Nafarroan argitaratzerik egongo ez zen bitartean.

Proiektuak ez zuen harrera txarrik izan ETA zaharrekoen artean. Baina presa handiagoa zuten beste egin-kizun batzuei lehentasuna emateko, eta PNVrekin genuen arazo larria ez okerrago jartzeko, aurrera ez egitea erabaki genuen.

Zer esan gaur proiektu hartaz? Erokeria zen ote? Orduan bai, baina gaur ez?

Arazoa ez da, jakina, «nominallismo» arazoa; eta hitz-aldaketa batez konpontzeko modukoa.

Baina «Euzkadi» hitza, are balio semantikoaz ere, guztiz lardaskatuta dago. Euskal Estatuak, bestalde, badu bere izena: Nafarroa. Honen oinarri soziologikoa, Euskal Herria izanik, «Euzkadi» hitza sobera dago. Egia da gaur ere.

Euskal Herria askatzeko, Nafarroa bererari behar da. Proiektu politikoa gisa, Nafarroa da sustraia eta helburua. Oihenarte Ipar-nafartarra, Gérard Lucotte Parisko antropologoa, eta Corominas kataluniar hizkuntzalariak, Euskal Herri berbera jartzen digute begien aurrean: lapurretara historikoen aurreko Nafarroa zaharra, Ipartarra eta Hegoarra batera, antzinatuekoa eta XXI. mendekoa, baskonikoa eta gure herria saldu zuten jauntxo eta burukidea guztien kontrakoa, euskalduna eta ezkerarra.

Hori da helburua. Eta nekez gaindituko da gure herriari dagozkion nazio-eskubideak ardatz jarri artean.

AEren ezagutza eta praktika eskatzen ditu. Inolako zantza izpirik gabe esan daiteke (beharra dago), askapen nazionalerako borroka, klasearteko borrokaren funtsa dela.

Esandakoari gehitu behar zaio gaur egun, inoiz ez bezala, Euskal Herriaren biziraupena jokoan dagoela. Gure ekonomia suntsituta eta gure hizkuntza desagertzeko bidean daude. Hau esatea ez da katastrofismoa, baizik eta errealitate mingarria. Herri bezala historiatik ezaba gaitzaten nahi ez badugu, AE lortzeko bidea oztopatzen diguten horma guztiak apurtu behar ditugu, eta lehenengoa, Espainiako Konstituzioa. Beren aldeaketa, non AEren ezagutza eta praktika sartzen diren, ezinbestekoa dugu. Noiz lortuko dugu indar metaketa nahiko, Telesfororen amets zoragarri hura «denok elkarrekin Maltzagaraino, gero baikoitza bere bidetik» posible izan dadin?

Dena den, helburu honetan ipini behar ditugu gure indar eta itxaropen guztia, geure burua abertzaleztat jotzen dugunok. Ez gaitzen engaina, gustoko izan ala ez, ez dago erdibiderik... lana, ahalegina, sofrikaria, borroka... Beotibarko guda kantak dioen bezala «mila urte igaro ta ura bere bidean». Bizi ala hiltzeko arazoa. Betiko leloa, baina kontuz, gure biziraupenerako itxaropidea gero ta murriztuago daukagu.